

Jon San Martin

OLERKI MUINARI BURUZKO SOLASA

(Igaz, 1964'an Larrea'ko
olerki-jaian irakurritako lana)

Separata "OLERTI"

Bilbao - 1965

Jon San Martin

OLERTI MUNITARI BURBUZKO SOLASA

(1984. urtean argitaratua)
Olerki-jainan irakurtzeko lana

ZALDIBIAKO HERRI LIBURUTEGIA

"OLERTI" gaztaria

Bilbao - 1982

Número registro: 2.971-65
Depósito legal: BI 892-1965

GRAFICAS BILBAO — BILBAO

OLERKI MUIÑARI BURUZKO SOLASA

Behi lez, gure alorrek zirikatu bearrez, ez dodaz esango entzule guztion gogozko diran gauzak, naiz eta oñi izan nire buruaren kaltean.

Olerkaritzaz ere, beste gai askori buruz letz, itzaspertu luzeak egin leikez. Itxura batean uskeria dan au be, mundu zabal bat lazkoa da, joera asko ta lege askoren arduretara dagoana. Ta, artea danez, arte guziak bezela, gustu askotarikoa izan leike olerkia be. Baña, arira zuzenago joateko, gaurkotasunezko olerki eren muiñari buruzko solasera joko dot.

Olerkia, gizonak bere izatean daroan sentipen taupotsa da. Eta, aitortu bear, musikak, pinturak edo beste arte guziak bezela, nekez mugatzen dala lege estu batzuen barruan. Olerkia, itz-neurtu, ritmo, eten, puntu eta abar baño zerbait geiago da. Orrek, muiñaren moldeak besterik eztira. Olerki batek, neurria, rima, ritmoa ta oiek azalekoak ditu. Azal orrek, bere barrukaldetik, beste bigarren azal bat dauka. Azal au mintzezkoa da, mea, leuna, ezitia, txanbeliña edo traketsa —olerkariak iñoiz bearrezko badau orrela izan bearra—, eta bigarren azal au izkuntza edo izkuntza erabiltzeko era da. Izkuntza bere esateko eren apainduraz estalia. Baña, ortik be barrurago joango bagiña, barru-barruko sakontasunian aurkitzen dan arimaren billa, orduan konturatuko gara, olerkia, azala ta mintza baño geiago dala; eurak baño barrurago dagoala izakeraren muiña. Ta beti, olerkia, sentitzen dana izan dedilla.

Goazen ba mamiñera, solasaldi au luzeegi eta aspergarri edo ulerkaitz izan ez dedin. León Felipe olerkari aundiaren agotik esango dot:

Deshaced ese verso.

*Quitadle los caireles de la rima,
el metro, la cadencia
y hasta la idea misma.*

*Aventad las palabras,
y si después queda algo todavía,
eso
será la poesía.*

Eta parkatu poeta erdeldun bat aipatu bearra au adierazteko. Olerkaritzak mugarik ez badau be, emengo ejempluak, euskaldunentzat diralarik askoz be gurago dot olerkari euskaldunen bidez ibilli. Naiz eta iñork merezi izatekotan León Felipe-k izan edonungo olerkarien omenaldia. Ta euskaldunok be ezagutu bear genduke bere olerti sailla.

Ezta bestiak lakoa, ta bestiak lakoa ezta, ta bai berak sortu ta landutako arima eskolakoa, orretxegaitik merezi dau gaurkoan be aipamen berezi bat.

Esan deutsuedan lez, muinera joango naiz zuzen, ta nire abotsaren doñuak eta nire sentipenen erak gatz aundirik emoten ez badeutse be, gure olerkarien atalen bidez erakarri nai dodaz barru-muiñetako arimak. Or dago olerkia. Izan be, zer da olerkia, gizonari barrutik sortzen jakon esan guria izan ezik? Sarri, barruko illunbeetatik aterea.

Olerki mugetakoa ezta olako neurria, alako rima edo besteko mintzaira; ez. Olerkia mugatzekotan, olerkia dan aldetik, mistiku, etiku, liriku, larri-miñezko ta abar, izan bear litzake. Ta, orretariko era bakoitzak bere muiña bear dau; ta, moldean, olerkariak, eskubide zabala dauka berak nai daben erara muiña jatzeko.

Olerkariak barrutikako muiña da beti agertu bear dabena, bere barruko taupotsak adieraziz. «Orixe» aundiaren itzekin esango gendukean eran:

*Bil nadin barnera, mintzo bat entzuki,
argi bat izetuz, bihotza landuki,
Leza-barne huntan zer dut ikusgarri?*

Ori da bakotxak bere kolkoari itaundu bear deusona: «Leza-barne huntan zer dut ikusgarri?» Olerkari bakotxaren leiza barrutik sortzen da olerkia. Giroan eragiña bear da. Orixe-ri sinismen bearrak eragitzen zeutsan lez. Errazoi orregaitik, olerki mistikoan, gure artean ezta iñor azaldu Orixe aiñakorik. Onek bere itzak:

*Kristo'gan dugu Iainko betea,
ostia Kristo betea dugu.
Zentzuek gai ez, betor sinismen
izkutu oiek argi ikusteko.*

Baiña, Orixe-k, beste doai bat be baeukon. Eskolatua zala, ta olerkiaren muiñari ederto ekian mintza eta azala jazten. Neurritz, puntuz eta izkuntzaz ondo ornituak dira bere olerki legeak. Bere *Barne-muinetan* liburuaren orrialdeetan oparo ibiltzen naiz sarri. Bai, bere orrialdeetan, beragaz batera esateko:

*Burua gartsu ta astun
zoro-biurgarri,
logaleak ilauntzen
ene txinar gorri.
Noiz arteko burruka
iasan-bear naiz ni?
Iauna, bein ta betikoz
igor arnas neri.*

Nor ez dau urduri ipintzen, nor ez dau kezkatzen olako olerkiak? Or dago Orixe-ren gogoia, or gizonaren arima Ta ori da olerki mistikua.

Lirikua barriz, Lizardi-k eta Lauaxeta-k ondo landu euskuen. Eurak ondo ezagunak dira gure artean, baiña gutxik ur emoten deutse, asko ibilliarren antz erxon guran. Lerro orretan, lirikuan esan gura dot, Gandiaga-k dakar zantzo barria. Ara bere muiña, rimagaz (puntuagaz), baiña neurri barik:

*Zarpil...
geure bizitz zarpilla letz,
zarpil elorria,
bere betiko samin zaarvaren,
bere karraxia.*

Ara karraxi orren aize barriak, muiñetikakoa nunbait:

*Neure barruan nengoan
arantzez katiatuta,
ozkatzen nindun samiña
nabarmenena zala-ta...
Ez bai neban begiratzten
neure miña baizen.*

*Noizbait begiok zabaldu
ta askatu nitun mundura...
Ikusi neban lurreko
zorigaitza ta tristura..
Geroztik ez dot malkorik
ixuri neugaitik.*

Onek eztira betegarri egiñak. Onek barrutik ur-tendakuak diraz. Ze, gure artian egiten diran olerki asko, ba dirudi denpora-pasa egiñikakoak edo dirala. Neurri ta rima aberatsez ornituak, baña, ori, azala bakarrik. Zenbait aberats letz, azal ona ta barru ustela; ustela ta arima bagea.

Norek esango deusta au txarra dala neurririk ez dabelako? Norek? Olerkia ezta matematika, baña bai au. Baña ikusi, olerkari ona, geienian, berak gura badau gauza da neurriz egiteko be. Ara, Txillardegi-ri eskeindutakoaren ataltxo batzuek, zortziko txikian egiñak:

*Gizon begi-goritu,
gizon jagi-zale,
gizon griñen-katigu,
gizon miñez-bete..
Gizon...*

*Zeuk legez daukat
arima gartsu bat.
Zeu legez nekatzen naz
muga leun baterantz.*

Betiko jardun baten
nekea daroat:
Ezagun nau gogaitak.
Etsipen lagun jat.

Zeuk legez esaten dot
neure zori miña,
negarrez erregutuz
poza ta atsegiña.
Atondu nai daroat
—ai, naia ta eziña!—
zalantza, aize, fedezko
barruko lorriña.

.....

Ume nintzan goizean
gauzak argi ziran.
Begiotan illuna
gero azaldu zan.

Gizon begi-goritu,
gizon lertu-zale,
gizon griñen-katigu,
gizon miñez-bete...
Gizon...

Zeurekin noa
mugako porturantz,
gauzak argi dagozan
erri askaturantz.

Apaindura geiago dau, lau puntuko zortziko txikian dare ondo neurtuak. Baiña, ona bada, dakarren esangura jario biziagatik da. Aurrez esan ez baneu, eziñien konturatuko neurtuak ziranik be. Muiñari jarraituaz goazenean, geienbat ere, ritmoaren doiñu lausoa bakarrik da oartzen doguna. Ara beste bat, aurretikoari zorrik ez deutsana eta bere laburrean muiñez ondo ornitua:

*Lurrezkoak gara,
Busti ta tristeak.
Pozak, noizik-bein, otzik,
labur ikertzen ditun,
landerren umeak.*

Gandiaga-ren ordez beste norbait artu neinkean konparazio au egiteko olerkari baten barruan be era askotarako joera dagoala adierazteko, baiña era guztien gaiñetik muiña aurkitzen dala, batez be muiñ ona Gandiaga-ren mallako bategandik datorrenean. Egiazko olerkaria dalako. Izan be, olerkia, bertsuak pillatzea baiño zerbait geiago da. Badaukaz beste era batzuek be, esate baterako, orain irakurriko deutsuedan onen erakoak, itz-jokuz eta eserak itzulduaz bertso batetik bestera. Zertako? Or dago kakoa. Zertako? Joko orregaz olerkariak, bere esangurari, indar geiago emotearren; edertasuna geituz gañera. Ta, ikusi esan nai orren barrua:

*Gauzak, jauna, pozik dagoz,
baiña gizonak min dira.
Nire arima tristeki dago
izadiari begira.*

*Izadiari begira,
gauzetan poza ageri da.
Gauzak pozik dagoz, jauna,
baiña gizonak min dira.*

Olako olerkia ulertzeko eztago jakitun izan bearrrik. Olako olerkiak jakitun diranen eta jakitun ezdiranen biotzetara errez eltzeakoak diraz. Idea bera bi aldiz biribilduta egonarren, olako bertsuak, gutxienez beste-berriz irakurtzeakoak diraz, euren muiñearaño sakon txastatuko bada.

Aresti berak be, sujetiboa izanaz gañera, irudi-menaren doaiak ditu. Ausarta da. Bere soroan bada gauzonik. Olerki sozialean, gaurkoz, maixu dogu.

Ta, olerki soziala ezta laster pasatuko dan moda bat, gure arteko askok uste dabien legez. Prolema soziala, kondairako gertaera bat da, ain zuzen be, gaurko egunetako gertaera. Ta era ortako olerkiak, gutxienez be, gerorako errazoi istoriku bat izango dau iñoiz be galduko eztana. Aresti-ren olerki li-break, muiñaregaz batean, badau olako ritmo zorakor baten doiñua, ta bere esan bearrari ez jako falta barrutikako etorria. Olakoa da *Nire aitaren etxea*, mozkortia ta errez iruntsitzekoa:

*Nire aitaren etxea
defendituko dut.*

*Otsoen kontra,
sikatearen kontra,
lukurreriaren kontra,
justiziaren kontra,
defenditu
eginen dut*

nire aitaren etxea.

Galduko ditut

aziendak,

soloak,

piñudiak;

galduko ditut

korrituak,

errentak,

interesak,

baina nire aitaren etxea defen-

[dituko dut.

Harmak kenduko dizkidate,

eta eskuarekin defendituko dut

nire aitaren etxea;

eskuak ebakiko dizkidate,

eta besoarekin defendituko dut

nire aitaren etxea;

besorik gabe,

sorbaldik gabe,

*bularrik gabe
utziko naute,
eta arimarekin defendituko dut
nire aitaren etxea.
Ni hilen naiz,
nire arima galduko da,
nire askazia galduko da,
baina nire aitaren etxeak
iraunen du
zutik.*

Tarteka «Nire aitaren etxea defendituko dut» aipatzean emoten deutsa geldi unea. Ritmoa erua-teko bearrezko dan geldi unea, bide-batez olerkiari bearrezko aria indartuaz joanaz, batasuna ta indar geiago emoten deutsana; gañera, muiñaren ariari interez geiago txertatuaz.

Olerkariak bere barruan oartzen dabena, oartuko ez baleu lez azalduaz egiten da olerkia. Barrutikako konzientziaren inkonzientzia balitz bezela. Neurri bage ta rima pobre bategaz, onela aurkitzen dogu Otsalar-en olerki existenzialista tankerako idea lauso baten oarkizuna:

*Ontzi au
zelula ilkorrekin dijoa galaxian,
muga gabe, nora-ezean,
bizi ondakiñez beterik;
aizean, maitasun kantak daramazki,
erioaren erpa zorrotzak lapurturik.
Galaxia bat, galaxia bi...
millaka galaxiak... egaz,
bukatzeko, denboraz eta unez.
Ta, galtzori bat ixillik da
ezkutunez estalirik,
salatzea iñor ausartzen eztalarik.*

Eta ortakoa baña oraindik errezago ulertzekoa da oraintxu *Herria* asterokoan argitara dan Zo-

rondo-ren larrimiñezko kanta. Idea bat erakartzeko, bost bertsu, era leun baten, lokarriz alkarri ondo lotuak. Ez dakit nor dan Albert Zorrondo dalako au, baña beronek ondo daki olerkigintzan nundik dabillen. Esangurak zirrikatzen dau bere lezaren barrutik, baña estalki ez titsu batek lausotzen dau ideia-aren muiñezko inguru txarmangarri bat lortzeko: Ara:

*Mirailari so eginik,
ez dut ezagutu ene aurpegia:*

*Aratseko itzal hitsak
zimur ilhun batek zaukan iraukia.*

*Aizepean kantaturik,
ez dut ezagutu nihauren mintzoa:*

*Ene boza bertze bat zen,
galdurikan bere pereku gozoa.*

*Hil-ondoaz dudaturik,
ez dut ezagutu nihauren arima:*

*Hau ez zena zeru-alde
bizirik igaiten, iduri sulama?*

*Nigarrez kolpez hasirik,
ez dut ezagutu nihauren bihotza:*

*Ez nuen uste naukala
hain feiros, hain eri eta hain beratza!*

*Bainan ene kopet leuna
ikusi orduko ibai-ur garbian,
Argitzen ezagutu dut
ene esperantza handia, abian!*

Beste prueba bat ipiñiko dot, muiña azalerago, argiago daukana; emen darabidan gaia obeto adierazteko. Valverde adiskidearen olerkitxo bat da bide:

Karrax, karrax...

abean arra

zurubian.

Karrax, karrax...

egurren garra

sutondoan.

Karrax, karrax...

arra eta garra,

ene maitia,

biotzean.

Gauza gutxigaz eta errez egiña. Apain jantzi, ta begirada batean uste dan baiño sakonagoa. Gure alorretan olako olerki fiña gutxi dabil.

Olerki ona au da, idea bat estetikaregaz girotua. Konzientzetik sortua. Barruko sentipenen bidez eratu eta inguru apain batean ornitua. Ta, euki go-goan, izkuntzaren edertasunak baiño esateko era ta adierazteko eren edertasunak askoz be geiago balio dabela; olerki izkuntzari, formaren moldeak emoten deutsalako edertasuna.

Olerkariak, bera bizi dan mundua edo berak sentitzen daben mundua artu bear ditu oñarrizat. Ta, beti, al dala, bide barriak jokatuaz. Pagoen edertasuna, mendien polita, ibaien marmarra, ta olakoetzaz, esan bear ziran guztiak esanda darez. Orregaz, geienbat be, beste erako muiña ornitzeko bakarrik baliatu bear giñake, ta ori be egoki datorrenean.

Olerkiak gizatiarra izan bear dau. Gizonetik gizonerakoa. Ta ez gizartearen egiari igesik dabillen oietakoa. Igesizko olerki orrek sekula ez dau izango ganorazko oñarririk, ta una batzuetan sujetibu txamarra bada be, denporaregaz bertan-bera eroriko dana da. Ta, au ezta nik asmatua. Diñodana, Eliot-ek nik baiño askozaz be lenago esandakoa da.

Emen aipatu ditudan olerkariak nere iritzia azal-

tzeko bakarrik izan dira. Ze, eurogaz ez dot esan
nai onenak diranik. Gaur emen, ezta nire asmoa,
ezta zeregiña ere, onenak bereiztea. Ejenpluok
ipintzeko eskura aukeran etorri jatazenak dira
eurok; besterik ez. Baiña orain, amaitzeko, onene-
tako baten olerkiak daukadaz, librean egiñak, adie-
razi guran, olerkia olerki dala ona danean, naiz
eta azalez eta mintzez orren txanbeliña ez izan.
Onek dira Jose Azurmendi adiskidearen sozial
olerti batetik jasotako atalak, niri barrurañoko arrara
eragitzen deustenak. Lenengo zatia erri-miñez dago,
ta bigarrena beartsuaren alde.

NEKAZARIA:

nire itza

zure aitzur kolpea da.

AMA *il da.*

Ez da jo kanpairik.

Illtzen utzi dute

ama.

Penaz il da.

Ez da jo kanpairik.

Bainan denok dakigu

nola dan urkatu

ama lurra.

GAZTE *nintzanean oraindik,*

sinisten bainuen,

erantzuten nuen baietz.

Gaur, ordea, ezetz esango dut.

Maitte nituen gauzak eta gizonak,

oek egindako gauzak,

eta erantzuten nuen baietz.

Egun zorioneko batean

baietza loratzen ikusteko esperantzaz.

Gaur, ordea, ezetz.

Ainbeste, ainbeste itzaro dut,

ainbeste ta ainbeste madarikatu alfer,

ez daitut sekula geiago baietziķ esango, sekula

Nire biotzean enbor-gerri moztu ta puskatua

jeiki zait, asaldu zital ta amorratua,

izugarri ta erlijioso,

bildurra ozkatzen duena, pakea destaiñatu,

ta zin-egin ezetz eta ezetz erantzutea.

Arima autsi ta odolstu,
etsi ta indartsu, gogor ta biurr,
zintzo,
beltz eta laido,
libre zuztar eta oldarrez,
mendi-lerroko basagerlari,
langille ta matxino.
Gogo malkartsuaren leize ta trokartetan
otsoaren gisa dabil izu.
Azkar, arima!, etsaiek
inguratzen dizute pakea.
Arima... sugar gorrotoko,
beargin ta liskarti.
Zuzunezko gose ortzetan min egiteraino.

«Biotza jaso, gizona salba
norberagandik, ta norberearen glanduletatik» (1)
nai nuke.

Biguñā baita uztarria ogi-ustean dagoenarentzat,
baiñā gizonaren zama ta mixeria...
Amaren sabela illobi denean
aur pisu-pisu batena, ilda,
ta ez duena jakingo zer den goserik,
gosez il zen-eta.

MEATZARI, ezurrak billatu, ezurrak,
gure gurasoenak.

Ezurrak,
arima oraindik eransteke dutenak.
Zulatu lurra,
sartu eskuak lurperaino,
zeruaren ametsik ez deneraino,
infernua-kiratsa deneraino,
ta sartu, meatzari, beherago.

Lurperatu zituzten-eta
behe oso behean.
Ez dedilla loretu
gure aitaren bat edo...
Ta esan ez dezaigun, isil-isil,
belarrira, iñork, mundura
libre giñala etorri.

(1) William Faulkner.

SEKULA EZ. Aiek eta gu ez gaitu
sekula lotuko zorte bakarraren lokarriak.
Ez ditu pobrea ta aberatsa berdinduko
ezerk, ez eriotzak berak.

Ta itzuliko gera lurraren altzora.
Gu beluzi.
Ta aiek,
usteltzekoan ere,
jauregietan
kargatuko dituzte arrak.

Aiek. Eta gu.
Eta, aterperikan gabe,
gure alarguntsak noranai.

NEKAZARIAK
galtzen doaz bizitza,
galtzen ardiek ille-
matazak bezela, arantzetan,
anðu, esi, bideetan,
eguzki, antzigarretan.
Esperantzazko zarpazar
mantartu,
pusketaka
doaz galtzen bizitza.

Jon San Martin